

**Nafarroako Soldata Egituraren urteko Inkesta**  
2021. urtea

**Langile bakoitzeko, urteko batez besteko soldata  
gordina 28.459,37 eurokoa izan da 2021ean  
Nafarroan, aurreko urtean baino % 1,7 handiagoa**

*2023ko ekainaren 20a*

Emakumeen urteko batez besteko irabazia gizonen irabaziaren % 78,4koa izan da

Industria izan da soldata handienak izan dituen sektore ekonomikoa, batez bestekoa baino % 10,4 gehiagorekin; soldatarik baxuenak, aldiz, Zerbitzuen sektorean izan dira —jarduera-motak askotarikoak izanik—, batez bestekoa baino % 5,3 gutxiago

Iraupen mugagabeko kontratuak dituzten langileen urteko batez besteko irabazia batez bestekoa baino % 5,3 handiagoa izan da; iraupen mugatuko kontratuak dituztenen kasuan, ordea, irabazia batez bestekoa baino % 21,0 txikiagoa izan da

## SOLDATA-BANAKETA

**Urteko batez besteko soldata gordina.** 28.459,37 eurokoa izan da langile bakoitzeko, 2021. urtean; aurreko urtean baino % 1,7 handiagoa.


**Soldata ertaina eta soldata ohikoena.** Nafarroako soldata ertaina<sup>1</sup> 25.859,88 eurokoa izan da, batez besteko soldata baino % 9,1 txikiagoa, eta soldata ohikoena edo modala 24.018,83 eurokoa izan da. Batez besteko soldataren eta soldata ertainaren arteko aldea azaltzeko, kontuan izan behar da soldata-banaketako funtzioen bereizgarria; hau da, langile askoz ere gehiago agertzea balio baxuetan soldatarik altuenetan baino. Nafarroako soldata-banaketa Espainiakoa baino uniformeagoa da; bertan, soldata ertaina urteko batez besteko soldata baino % 16,4 baxuagoa da, eta horrek desberdintasun txikiagoa erakusten du.



<sup>1</sup>Biztanleria bi talde berdinetan zatitzen duen balioa, zati bat soldata ertaina baino soldata baxuagoekin eta beste bat balio horren gainera dauden soldatekin.

### 1. GRAFIKOA

Urteko soldata gordinaren banaketa Nafarroan. 2021. Urtea




Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, 22.500 eurotik behera irabazi duten emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izan da. Zifra horretatik aurrera, soldata-maila bakoitza jaso duten emakumeen kopurua soldata bereko gizonena baino txikiagoa izan da beti.

### 2. GRAFIKOA

Urteko soldata gordinaren banaketa Nafarroan, sexuaren arabera. 2021. Urtea



Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.




## LURRALDE-MAILAKO ANALISIA

**Urteko batez besteko soldata gordina.** Nafarroako Foru Komunitatean, soldata gordina 28.459,37 eurokoa izan da, langileko, 2021. urtean; Espainian, aldiz, 25.896,82 eurokoa.

**Autonomia-erkidegoak.** 2021. urtean, soldata gordin handienak honako hauek jaso dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainiako batez besteko soldata gordina baino % 20,0 handiagoa; Madrilgo Erkidegoa (% 14,0), eta Nafarroako Foru Komunitatea, hirugarren lekuan, estatukoa baino % 9,9 gehiagorekin. Hiru erkidego horiek, Kataluniarekin batera, urteko batez besteko irabazia estatuko batez bestekoa baino handiagoa izan dute.

### 3. GRAFIKOA

**Urteko batez besteko soldata gordina autonomia-erkidegoen arabera. Espainiako batez besteko soldatarekiko desbideratzea %etan. 2021. urtea**



Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.



**Irabaziaren urteko hazkundera.** Extremadurak, Kantabriak eta Kanariak hazkunderik handienak izan dituzte; berriz, Balearrek eta Murtziako Eskualdeak izan dituzte hazkuntzarik txikienak.

**Banakapena sexuaren arabera.** Emakumeen batez besteko soldata gizonena baino baxuagoa izan da erkidego guztietan, baina aldea desberdina izan da batzuetatik besteetara. Aldakortasun hori haietako bakoitzeko enpleguaren egitura ezberdinak azaltzen du; Nafarroan, zehazki, zerbitzuen sektorean batez ere emakumeak gehiago direlako gertatzen da, eta haiek pilatzen dituztelako, neurri handiagoan, iraupen mugatuko kontratuak.

## 1. TAULA

Urteko batez besteko soldata gordina autonomia-erkidegoen arabera (eurotan) eta ratioak (%etan). 2021. urtea

	Bi sexuak		Gizonak		Emakumeak		Ratioa emakumea/gizona (%)
	Soldata (eurotan)	Aldakuntza-tasa (%)	Soldata (eurotan)	Aldakuntza-tasa (%)	Soldata (eurotan)	Aldakuntza-tasa (%)	
Andaluzia	23.154,99	3,7	25.464,78	2,7	20.427,80	4,7	80,2
Aragoi	25.011,55	3,7	27.389,18	3,3	22.283,81	4,3	81,4
Asturias	25.046,60	2,1	28.399,51	1,6	21.808,96	2,4	76,8
Balearrak	24.134,73	1,1	25.898,51	0,8	22.344,76	1,6	86,3
Kanariak	22.466,23	3,9	23.619,76	4,1	21.178,57	3,5	89,7
Kantabria	24.470,70	4,2	27.233,75	5,5	21.532,96	2,6	79,1
Gaztela eta Leon	23.564,33	2,7	26.263,49	2,8	20.795,39	2,4	79,2
Gaztela-Mantxa	23.234,55	2,9	24.897,33	3,6	21.154,58	1,9	85,0
Katalunia	28.145,02	3,9	31.212,67	4,0	25.015,94	3,8	80,1
Valentziako Erkidegoa	23.448,29	2,6	25.914,86	2,7	20.670,50	2,5	79,8
Extremadura	21.393,01	4,5	22.794,52	3,3	19.833,03	5,5	87,0
Galizia	23.305,86	2,1	25.794,19	2,0	20.904,37	2,2	81,0
Madrilgo Erkidegoa	29.512,58	2,4	32.213,88	2,3	26.578,07	2,6	82,5
Murtziako Eskualdea	23.281,39	1,6	25.674,66	1,8	20.189,83	0,9	78,6
<b>Nafarroako FK</b>	<b>28.459,37</b>	<b>1,7</b>	<b>31.643,22</b>	<b>1,0</b>	<b>24.809,14</b>	<b>3,2</b>	<b>78,4</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa	31.063,68	2,8	33.706,34	2,0	28.084,16	3,5	83,3
Errioxa	23.716,88	1,8	26.488,06	3,2	21.135,77	0,8	79,8
GUZTIRA	25.896,82	2,9	28.388,69	2,7	23.175,95	3,2	81,6

Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.




## URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA SEXUAREN ARABERA

**Soldata-arrakala. Emakumeen urteko batez besteko soldata** 24.809,14 eurokoa izan da, gizonen (31.643,22 €) % 78,4koa, Espainiakoa baino baxuagoa (% 81,6).

Gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldea txikiagoa da orduko irabazia alderatzean. Emakumeen urteko batez besteko soldata gizonenaren % 78,4koa izan da eta arrakala txikiagotu egin da orduko irabazia kontuan hartuta; ratioa % 88,3koa izan da. Horren arrazoia da emakumeek, batez beste, gizonek baino ordu gutxiago egiten dituztelako lan.

### 4. GRAFIKOA

Urteko batez besteko soldata gordina langile bakoitzeko Nafarroan eta Espainian (eurotan). 2021. urtea



Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.

### 2. TAULA.

Urteko batez besteko soldata gordina langile bakoitzeko, sexuaren (eurotan) eta ratioen (%) arabera. 2021. urtea

	Nafarroa	Tasa <sup>1</sup>	Espainia	Tasa <sup>1</sup>
Bi sexuak	28.459,37	1,7	25.896,82	2,9
Gizonak	31.643,22	1,0	28.388,69	2,7
Emakumeak	24.809,14	3,2	23.175,95	3,2
Emakumea/Gizona ratioa	78,4		81,6	

(1) Aldakuntza-tasa aurreko urtearekin alderatuta

Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.

Sexuen arteko soldata-banaketaren desberdintasuna nabaria da. Emakumeen % 19,8k lanbide arteko gutxieneko soldata baino diru-sarrera txikiagoak edo berdinak izan dituzte (LGS 13.370,00 eurokoa izan da urteko 2021. urtean), eta, gizonen kasuan, % 7,4 izan dira egoera horretan.

Soldata altuenei erreparatuta, gizonen % 4,0k LGSa baino bost aldiz soldata handiagoak izan dituzte, eta, emakumeetan, % 1,5 izan dira egoera horretan.



Soldata-banaketak sexuaren arabera duen desberdintasunaren deskribapena beste bi adierazlek osatzen dute: irabazi baxuko langileen proportzioa (orduko irabazi ertainaren 2/3 baino gutxiagoko irabazia duten soldatako pertsonak) % 15,9koa izan da, eta, langile horietatik, % 62,2 emakumeak izan dira.

Gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldeetan faktore askok dute eragina: kontratu-motak, lanaldi-motak eta lan ezberdinek, besteak beste.

Hala, lanaldi partziala duten emakumeak gehiago dira (lanaldi hori duten langileen % 21,6tik % 6,4 gizonak dira eta % 15,2, emakumeak), soldata handieneko sektorean emakume gutxiagok egiten dute lan eta industrian lan egiten dutenen % 26,5 emakumeak dira.

### 3. TAULA

Langileen ehunekoa urteko irabaziaren arabera LGSrekin alderatuta. 2021. urtea

	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak
0-1 LGS	7,38	19,76	13,15
1-2 LGS	37,63	43,87	40,54
2-3 LGS	32,09	24,14	28,39
3-4 LGS	14,13	7,77	11,16
4-5 LGS	4,82	2,93	3,94
5-6 LGS	2,10	0,78	1,48
6-7 LGS	1,13	0,50	0,84
7-8 LGS	0,59	0,24	0,43
8 LGStik gora	0,14	0,01	0,08


Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.

## URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA JARDUERA EKONOMIKOAREN ARABERA

Inkestak jasotzen duenez, ordainsarrietan alde nabarmenak daude sektore ekonomikoaren arabera. Industria izan da batez besteko soldata handieneko sektorea, batez bestekoa baino % 10,4 handiagoa; Eraikuntzan urteko batez besteko soldata batez bestekoa baino % 1,9 handiagoa izan da, eta, Zerbitzuen sektorean, aldiz (jarduera-multzo heterogeneoagoa biltzen du), urteko soldatarik txikiena izan da, batez bestekoa baino % 5,3 txikiagoa.

### 5. GRAFIKOA

Urteko batez besteko soldata gordina sektore ekonomikoaren arabera. 2021. urtea



Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.



#### 4. TAULA

Urteko batez besteko soldata gordina langile bakoitzeko, jarduera-sektorearen (eurotan) eta ratioen (%) arabera. 2021. urtea

	Guztira	Tasa <sup>1</sup>	Industria	Tasa <sup>1</sup>	Eraikuntza	Tasa <sup>1</sup>	Zerbitzuak	Tasa <sup>1</sup>
Bi sexuak	28.459,37	1,7	31.432,37	-0,2	28.986,02 (*)	6,7 (*)	26.963,80	2,5
Gizonak	31.643,22	1,0	33.239,05	-0,2	29.468,09 (*)	6,8 (*)	30.596,24	1,6
Emakumeak	24.809,14	3,2	26.416,72	1,3	(**)	(**)	24.446,60	3,5
Emakumea/Gizona	78,4		79,5				79,9	

(1) Aldakuntza-tasa aurreko urtearekin alderatuta

(\*) Lagin-behaketaren kopurua 100 eta 500 artekoa da; beraz, zifra ez da oso fidagarria, eta arretaz interpretatu behar da.

(\*\*) Ez da dagokion datua eman, lagin-behaketaren kopurua 100 baino txikiagoa izateagatik.

Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.


#### URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA ADINAREN ARABERA

Erlazioa positiboa da langileen adinaren eta soldata-mailaren artean, adin handieneko langileek ordainsari handiagoak jasotzen dituztelako, kontuan hartutako azken adin-tartea kenduta (54 urtetik gora). Dena den, kontuan hartu behar da adin txikiagoetan (25 urtetik behera), inkestaren lagina txikia dela, eta, ondorioz, emaitzen adierazgarritasuna ere bai.

25 urtetik beherakoen eta 25 eta 34 urte artekoen batez besteko soldata batez bestekoa baino txikiagoa izan da, % 51,4 eta % 16,6, hurrenez hurren; 35 eta 44 urte bitartekoek, 45 eta 54 urte bitartekoek eta 54 urtetik gorakoek, aldiz, urteko batez besteko soldata gordina baino % 0,6, % 9,1 eta % 6,2 handiagoa izan dute batez besteko soldata, hurrenez hurren.

#### 6. GRAFIKOA

Urteko batez besteko soldata gordina sexuaren eta adinaren arabera. 2021. urtea



Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

## 5. TAULA

Urteko batez besteko soldata gordina langile bakoitzeko, adinaren (eurotan) eta ratioen (%) arabera. 2020. urtea

	Guztira	Tasa <sup>1</sup>	25 urte baino gutxiago	Tasa <sup>1</sup>	25 eta 34 urte bitartean	Tasa <sup>1</sup>	35 eta 44 urte bitartean	Tasa <sup>1</sup>	45 eta 54 urte bitartean	Tasa <sup>1</sup>	55 urte eta gehiago	Tasa <sup>1</sup>
Bi sexuak	28.459,37	1,7	13.831,44 (*)	4,5 (*)	23.725,88	2,1	28.642,26	2,3	31.059,64	1,2	30.212,94	3,6
Gizonak	31.643,22	1,0	15.301,00 (*)	1,9 (*)	25.805,27	3,4	31.397,05	0,8	35.275,72	-0,5	33.725,74	4,2
Emakumeak	24.809,14	3,2	(**)	(**)	21.609,74(*)	1,9(*)	25.177,97	4,5	26.204,41	3,4	26.565,43	4,6
Emakumea/Gizona ratioa	78,4				83,7 (*)		80,2		74,3		78,8	

(1) Aldakuntza-tasa aurreko urtearekin alderatuta

(\*) Lagin-behaketaren kopurua 100 eta 500 artekoa da; beraz, zifra ez da oso fidagarria, eta arretaz interpretatu behar da.

(\*\*) Ez da dagokion datua eman, aurreko urtean lagin-behaketaren kopurua 100 baino txikiagoa izateagatik.

Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.

Aurreko urtearekiko soldata-aldakuntzari erreparatuta, igoera izan da adin-talde guztietan, eta nabarmentzekoa da 55 urteko eta gehiagoko pertsonetan izandakoa.

Soldata-aldeak sexuaren arabera oro har handiagoak izan dira langileen adinak gora egin ahala, emakume gazteagoek kualifikazio hobea (lana, ikasketak...) dutelako emakume nagusiagoek baino.

## URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA KONTRATU-MOTAREN ARABERA

Inkestan bi kontratu-mota hartu dira kontuan: iraupen mugagabekoak eta iraupen mugatukoak.

Iraupen mugagabeko eta iraupen mugatuko kontratua duten langileen artean alderaketak egin ahal izateko, urte osoan lantokian egon ez diren langileen soldata doitu da, eta urte osoan baldintza berberetan lanean aritu izan balira jasoko zuketenen baliokidea den urteko soldata esleitu zaie.


Iraupen jakin bateko kontratua duten langileek batez besteko soldata baino % 21,0 txikiagoa jaso dute urteko batez besteko soldata, eta kontratu mugagabeko pertsonak, aldiz, hura baino % 5,3 handiagoa. Sexuari erreparatuta, alde hori handiagoa izan da gizonen kasuan (% 30,1 eta % 5,9, hurrenez hurren) emakumeen kasuan baino (% 8,1 eta % 2,6, hurrenez hurren).





## 7. GRAFIKOA

Urteko batez besteko soldata gordina sexuaren eta kontratu-motaren arabera. 2021. urtea



Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.

Aurreko urtearekiko urteko irabazien aldakuntzari dagokionez, soldata igo egin da iraupen mugagabeko kontratuetan, % 1,3, eta, % 1,8 iraupen mugatukoetan.

Sexua kontuan hartuta, iraupen mugagabeko kontratua duten gizonen soldata aurreko urtekoaren antekoa izan da, eta emakumeena, % 4,1 handiagoa, aurreko urtearekin alderatuta. Iraupen mugatuko kontratuetan, gizonen urteko irabazia % 4,2 igo da, eta emakumeena % 0,2 jaitsi. Nabarmentzekoa da iraupen mugatuko kontratuak dituzten emakumeek gizonek baino irabazi handiagoa izan duteka.

## 6. TAULA

Urteko batez besteko soldata gordina langile bakoitzeko, kontratu-motaren (eurotan) eta ratioen (%) arabera. 2021. urtea

	GUZTIRA	Tasa <sup>1</sup>	Iraupen mugagabea	Tasa <sup>1</sup>	Iraupen mugatua	Tasa <sup>1</sup>
Bi sexuak	28.459,37	1,7	29.960,96	1,3	22.496,94	1,8
Gizonak	31.643,22	1,0	33.496,26	0,0	22.103,54	-0,2
Emakumeak	24.809,14	3,2	24.463,64	4,1	22.795,95	4,2
Emakumea/Gizona	78,4		76,0		103,1	

(1) Aldakuntza-tasa aurreko urtearekin alderatuta

Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.



## URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA LANAREN ARABERA

Lanaren araberako soldata hiru talderen bidez aztertzen da: altua, ertaina eta baxua, Lanbideen Estatuko Sailkapenean oinarrituta.

Talde altuan honako hauek biltzen dira:

- Enpresetako eta administrazio publikoetako zuzendariak.
- Teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak.
- Teknikari eta laguntzako profesionalak.

Talde ertainean honako hauek biltzen dira:

- Administrazioko langileak.
- Jatetxe-zerbitzuetako langileak, zerbitzu pertsonalak, babes-zerbitzuak eta saltokietako saltzaileak.
- Nekazaritzako eta arrantzako langile kualifikatuak..
- Eskulangileak eta manufaktura-industrietako, eraikuntzako eta meatzaritzako langile kualifikatuak, instalazio eta makineriako operadoreak izan ezik.

Talde baxuan honako hauek biltzen dira:

- Instalazio eta makineriako operadoreak.
- Langile ez-kualifikatuak.

Nabarmentzekoa da altua izeneko taldean izandako irabazien aldea, urteko batez besteko soldata gordina baino % 36,0 handiagoa, irabazia urteko batez beste 38.692,25 euro gordinekoa izan baita.

Gainerako lanek batez bestekoa baino soldata baxuagoak izan dituzte batez beste, % 17,6 laneko talde ertaineko soldatako pertsonen kasuan, eta % 20,1, laneko talde baxuko soldatako pertsonen kasuan.

Sexuari erreparatuta, soldata-aldeak handiagoak izan dira talde baxuan, emakumeen batez besteko soldata gizonenaren % 65,6 izan baita.

### 7. TAULA

Urteko batez besteko soldata gordina langile bakoitzeko, lanaren (eurotan) eta ratioen (%) arabera. 2021. urtea

	Bi sexuak	Tasa <sup>1</sup>	Gizonak	Tasa <sup>1</sup>	Emakumeak	Tasa <sup>1</sup>	Emakumea/Gi zona ratioa
Guztira	28.459,37	1,7	31.643,22	1,0	24.809,14	3,2	78,4
Altua	38.692,25	2,7	43.357,10	2,0	34.387,58	4,7	79,3
Ertaina	23.443,13	0,3	27.202,45	2,0	19.759,45	-1,2	72,6
Baxua	22.729,89	0,7	25.592,38	-0,8	16.796,75	3,4	65,6

Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.




## URTEKO BATEZ BESTEKO SOLDATA GORDINA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Espainiako nazionalitateko langileen urteko batez besteko irabazia atzerritarrena baino % 42,9 handiagoa izan da.

### 8. GRAFIKOA

Urteko batez besteko soldata gordina sexuaren eta nazionalitatearen arabera. 2021. urtea



Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.

### 8. TAULA

Urteko batez besteko soldata gordina langile bakoitzeko, nazionalitatearen (eurotan) eta ratioen (%) arabera. 2021. urtea

	GUZTIRA	Tasa <sup>1</sup>	Espainiarra	Tasa <sup>1</sup>	Atzerritarra	Tasa <sup>1</sup>
Bi sexuak	28.459,37	1,7	29.106,79	2,0	20.367,76	-0,2
Gizonak	31.643,22	1,0	32.341,07	1,1	23.194,25 (*)	0,9 (*)
Emakumeak	24.809,14	3,2	25.417,68	3,7	16.912,37 (*)	1,8 (*)
Emakumea/Gizona ratioa	78,4		78,6		72,9 (*)	

(\*) Aurreko urtean lagin-behaketan kopurua 100 eta 500 artekoa izan zen; beraz, zifra arretaz interpretatu behar da.

Iturria: Nastat, INEren Soldata Egituraren Urteko Inkesta kontuan hartuta.





#### OHAR METODOLOGIKOA

Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren helburu nagusia da langile bakoitzeko urteko irabazi gordinaren zenbatespenak lortzea, kontratu-motaren, sexuaren, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalako (CNAE-09) atalen eta Lanbideen Estatuko Sailkapeneko (CNO-11) lanbideen arabera sailkatuta.

**Inkesta-mota:** urtean behin egiten den egitura-inkesta.

**Biztanle-eremua:** Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuak. Erregimen Orokorra: EJSN-09ko B eta S arteko sekzioak eta Itsasoko Langileen Araubide Berezia: itsas garraioa (EJSN-09ko 50 dibisioa); beraz, kanpoan geratzen dira Estatuko Klase Pasiboen Erregimenari atxikitako sektore publikoko langileak. Kontu bakoitzaren barruan, banako soldatako langileak hautatzen dira.

**Eremu geografikoa:** lurralde nazional osoa.

**Erreferentzia-aldia:** urte naturala.

**Laginaren tamaina:** 28.500 establezimendu eta 230.000 langile, gutxi gorabehera.

**Laaginketa-mota:** etapa biko laginketa. Lehen etapako estatistika-unitatea kotizazio-kontuak dira, eta esleipen optimoko ausazko laginketa estratifikatua erabiltzen da. Inkesta zorrotza da 500 langiletik gorako establezimenduentzat. Bigarren etapa kotizazio-kontuetako langileak dira. Kontu bakoitzean hautatutako langileen kopurua kontu horren tamainaren arabera da.

**Bilketa-metodoa:** establezimenduak zuzenean betetako galdetegia eta administrazio-fitxategien ustiapena.



#### INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Nafarroako Soldata Egituraren Urteko Inkesta. 2021. urtea



#### CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00